

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

362/2026 Foru Agindua, uztailaren 20koa. Behin betiko onespena ematea Kuartangoko eta Zuiako udalerrien arteko udal mugaren lerroa aitortzeko lanei

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailaren urtarrilaren 28ko 24/2026 Foru Aginduaren bidez, honako hau xedatu zen:

Lehenengoa. Behin-behineko onespena ematea Kuartangoko eta Zuiako udalerrien arteko udal mugaren lerroa aitortzeko lanei, 2025eko urriaren 21eko dagokion aktan jasotakoaren arabera.

Bigarrena. Aipatutako muga jurisdikzionalak adierazteko mugarriak jartzea, Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeen mugak arautzen dituen otsailaren 21eko 4/2011 Foru Arauaren 55. artikuluan jaso bezala.

Foru agindu hori betez, mugarritzea egin zen eta, 2026ko ekainaren 5ean, Lurralde Informazioaren Ataleko teknikariek nahitaezko txostena egin zuten. Txosten horretan, behin betiko finkatzen dira trazadura zehatz-mehatz islatzen duten koordenatuak, bai eta aipatutako muga lerroaren irudikapen grafikoa ere.

2026ko ekainaren 8an, udalerri interesdunei txosten teknikoa helarazi zitzaientzen, bai eta akta eta egindako dokumentazio grafikoa ere, eta 15 eguneko epea eman zitzaientzen egokitze jotzen zituken alegazioak egiteko, onetsitako koordenatueta mugarriak jartzean egindako balizko akatsei buruz, otsailaren 21eko 4/2011 Foru Arauaren 41. artikuluan ezarritakoari jarraituz. Horretarako emandako epea igarota, ez da alegaziorik jaso.

Aurrekari horiei honako oinarri juridiko hauek aplikatu behar zaizkie:

Lehenengoa. Udal mugak aitortzeko prozedura Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Mugak arautzen dituen otsailaren 21eko 4/2011 Foru Arauaren 47. artikulutik 56. artikulura bitartean dago jasota. Xedea, funtsean, bi udalerri edo gehiagoren arteko mugak aitortu edo egiaztatzea da, muga lerroa igarotzen den puntuak finkatu edo eguneratze aldera. Aitorpen lanetan honako hauek daude sartuta: lekuan bertan muga lerroak zehaztea, haiek gauzatzea, aktak eta aipamenak kudeatzea eta haiek formalizatzeko beharrezkoak diren administrazio egintza guztiak gauzatzea.

49. artikuluan eta hurrengoetan araututako prozedurari jarraitu zaio, eta ezarritako betekizun guztiak bete dira.

Bigarrena. Txosten teknikoa Kuartangoko eta Zuiako Udalei helarazi zaie, kartografia ofizialaren gainean egindako udal muga irudikapen grafikoarekin, mugarrien aipamenekin eta dagokion aktarekin batera, eta, horretarako emandako epea amaituta, alegaziorik egin ez denez, behin betiko onetsi behar dira mugak aitortzeko egindako lanak.

Hirugarrena. Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailak eskumena du aztergai den espedientearen ebazteko, bat etorritik Arabako Foru Aldundiaren sailen egitura 2023-2027 legeegintzaldirako zehazten duen Diputatu Nagusiaren ekainaren 30eko 152/2023 Foru Dekretuak eta Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onesten duen Foru Gobernu Kontseiluaren urtarrilaren 30eko 1/2024 Foru Dekretuak xedatutakoarekin.

Horregatik, dauzkadan eskumenez baliatuz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Behin betiko onespena ematea Kuartangoko eta Zuiako udalerrien arteko mugaren lerroa aitortzeko lanei, 2025eko urriaren 21eko dagokion aktan jasotakoaren arabera.

Bigarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitara ematea, eta, berarekin batera, muga lerroaren mugarri zehaztatzaileen kokapenak, indarrean dagoen UTM ETRS89 sistemako koordinatuen bidezkoak.

Hirugarrena. Ebazpen hau jakitera ematea udal interesdunei eta gaiaren arabera eskumena duten administrazio publiko eta organismoei.

Laugarrena. Administrazio bidea amaitzen duen ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da EAEko Auzitegi Nagusiko jurisdikzio horren salan, bi hilabeteko epean, edo, nahi izanez gero, berraztertzeko errekurtsua jarri ahalko zaio egintza eman duen organoari berari, hilabeteko epean, bat etorriz Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoarekin. Interesdunek egoki jotzen duten beste edozein errekurtsu ere aurkez dezakete.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko uztailaren 20a

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko diputatua

LAURA PÉREZ BORINAGA

I. ERANSKINA

"KUARTANGO - ZUIA UDALERRIEN ARTEKO MUGA LERROA"

ETRS89 erreferentzia sistema UTM proiektzioa				
Mugarria	X	Y	Z Ortometrika	NON BATZEN DIREN
M.1	511.740,23	4.751.340,94	815,79	
M.2	511.421,14	4.751.679,70	759,32	Zuzena
M.3	511.286,75	4.751.811,22	735,83	Zuzena
M.4	510.925,85	4.752.073,92	685,80	Zuzena
M.5	510.764,92	4.752.150,16	690,04	Zuzena